

Anai Ignazio Senperenaren hiletako homilia

Irun, 2017.11.01

Anai Jose Roman Perez, Ikuslari Laguntzailea

Eukaristiako irakurgaiak: 1Kor 15, 20-24a.25-28; Mt 9, 1-8

Apaiz lagunok, Anai Ignazioren arreba Margarita eta senideok, salletar Anaiok eta lagunok!

Urtarrileko egun honetan Anai Ignazio zenaren bizitzagatik eskerrak emateko bildu gara hemen. Anai Ignazio bere Pazkoa ari da ospatzen, salletar Elkartearen fruitu heldu bihurturik. Eta Anai Ignaziori genion eta diogun estimu handia adierazi nahi dugu Eukaristia honen bitartez, La Salle Enean, "Gure Etxean". Izan ere, Ignaziok hemen bertan agindu zuen Kristau Eskoletako Anai izanik emango zuela bere bizitza, elkaturik eta asoziazioz, pobreen alde.

Bere tenore-ahots eder eta melodiatsua isildu egin zaigu. Bere kaligrafia ederrarekin idatzitako lerroak bukatu dira. Joan zaigu Jaunarengana. Jakin bagenekien Ignaziok denbora zeramala ahuldadeak jota, eta, horrez gain, adinaren ajeek ere ez ziotela bere Anai lagunarekin ibilalditxoak ematen uzten. Joan den larunbatean egon ginen azkeneko aldiz berarekin. Haren begiradak eta keinuek ez zuten adierazten guk nahi genukeen adorea, baina hala eta guztiz ere barruko bakea komunikatzen zuen. Anai Ignazioaren bizitzako oroitzapenak argi-emaile zaizkigu une goibetan. Bere zintzotasuna indar bultzatzaile dugu, guk ere Jesusen bideari ekin diezaiozun. Anai zintzo bat hil zaigu!

Ignazioren heriotzak hunkiturik eta hutsik bezala uzten gaitu, saminez. Izan ere, heriotzak gure hauskortasunaren aurrean jartzen gaitu. Guztiok izango dugu geure heriotzarekin hitzordua. Une larria, baina fededunok zera espero dugu, azkenean *biziak aurrera egingo duela Kristori esker*, eta heriotza indargabeturik geldituko dela. Orain, bere betiereko atsedenen alde otoitz egitearekin batera, zera galdetzen diogu geure buruari: Non aurkitzen zuen Ignaziok bestei hain emanda bizitzeko indarra? Nongo iturburuan sortzen ziren bere itxaropena eta bizinahia? Non, Anai bokazioari zion maitasuna?

Ebanjelioan, Mateok Jesusen bihotz errukiorra gogoratu digu eta noraino dagoen prest guri barkamena eman eta esperantzaz betetzeko.

Izan ere, Jainkoaren maitasuna gure bizitzako arazo eta ahuldade guztien ginetik dago, hain da barkabera! Horregatik, Jesusen jarraitzaileok bete-bete sinesten dugu Jainkoaren maitasunaren esperientzia dela etorkizuneko ibilbideak egitera bultzatzen gaituena; eta maitasun hori ez dela inoiz amaituko: ez porrotak, ez gure mugek, ez eritasunek, ez heriotzak ez dutela Argi eder hori itzaliko.

Zalantzarik gabe Eukaristia honek, nola hala, azken ukitua ematen dio Jainkoak Ignaziorengan, orain 87 urte, Azkoitian hasi zuenari. Izan ere, Azkoitiak Salletar Anaia izateko bokazio asko eman ditu. Ignaziok gurasoengandik, Jose Mari eta Josefarengandik jaso zuen

kristau fedea, eta bataioan landatutako zuhaitz txikia, poliki-poliki handitzen joan zen, fruituak emanez pobreen eta langileen seme-alaben onerako.

Ignazioarengan zintzotasunak oinarri bat dauka: Nazaretoko Jesusen segimendua. Dohain eder eta ugariz hornitutako gizona, bere ibilbideak garbi adierazten du Ebanjelioaren doakotasunean sustraitzen zela Ignazioren leialtasuna.

Hamabi urte zituela, 1941ko abuztuaren amaiera aldean, etorri zen Iruna, etxe honetara, ilusioz beteta, nahiz eta seguru gauden asko kostata etorriko zela, bere familia eta etxeakoak utzi behar izanagatik. Floreagako Eskolan Anaiekin ikasi zuena barneratzen eta sakontzen joan zen; eta hementxe bertan, 1946ko Arantzazuko Ama Birjinaren egunean egin zituen bere lehenengo botoak Ignaziok.

19 urterekin hasi zen erlijioso-hezitzailearen lanetan Santiago Apostolu ikastetxean, Bilbon. Maitasun handiz gogoratzen zituen han emandako bederatzi urte haiek. Gero, Urola aldera jo zuen eta bi ikasturte Zumarragako Legazpi eskolan jardun zuen. Ondoren Usurbil eta Zarauzko salletarron eskolako mutilek bere gertutasunarekin eta maisu lanarekin gozatu ahal izan zuten.

1965an, 36 urterekin, berriro, Bizkaia aldera joan zen, Barakaldora hasieran, handik Iturribideko Patronatura, gero Santiago Apostolu eta Deustuko ikastetxeetan aritu zen gogoz eta bere onena ematen.

Ondoren, Eibarko eskolan, ingelesa bereziki irakatsiz, hamabi urte pasa zituen. Bere apaltasunagatik eta harreman pertsonalen hurbiltasunagatik ikaragarri estimatua izan zen.

Bilbo Barrutiko premiei erantzunez, 1991an Barrutiko Probintzial Etxera etorri joan zen, Donostiara, eta bertan buru belarri jardun zuen Anaien zerbitzuan, batik bat artxibo lanetan.

2000garren urtetik aurrera 16 urte eman ditu Irungo etxe honetan, beti Anaiengandik hurbil.

Eskatu izan zaizkion ardura guztietan Ignaziok garrantzi handia eman izan die detaileei, xehetasunei. Otoitzari emandako gizon zintzoa izan da. Niregan utzi duen arrastoan, zinezko salletarra izan dela azpimarratuko nuke. Nortasun maitagarria zuen: apala, hurbila, emana, leiala, zerbitzaria, hezur-muinetaraino erlijioso.

Ibilbide luze honen ondoren, bere azken kantua, amaigabea, abesten jarraituko du Ignaziok, Jainkoaren altzo maitagarrian.

Anai Ignaziok mundua gizakoiagoa izan zedin eman du bizitza. Eta bizitza hori apaindu egin dute bere zaletasun guztiek: musikak, kantuak, Realzale izateak, hain estimatuak genituen urtebetetze-egunetako postalek, mimoz eta sentimenduz betetako koadroek eta kaligrafia ikusgarriekin eginitako diplomak. Gehienetan bazuten zerikusia besteen gustu eta zaletasunekin. Lagun hurkoa erdigune izan da beti Ignazioren ikuskeran.

Jainkoaren deiari adi, eskolan zerbitzatu zuen gizartea, bizitzaren muinean Jainkoa jarri. Langile zintzo honi atzo etorri zitzaien Jauna ate joka.

Jesusek, heriotzako ordua gertu zuela, lurperatzen den gari alearekin konparatu zuen bere etorkizuna. Dena amaitu dela iruditu arren, denbora gutxian harri eta zur ikusten dugu alea eroritako lekuan nola sortzen den gora egingo duen belartxo berria eta ondoren galburua, ale berriz betea. Oso konparaketa xumea da, baina ederki asko erakusten du heriotzaren emankortasuna, bizitza maitasunez koroatzen duenean, gure Ignazioaren kasuan bezala.

Prest aurkitu du Jaunak, eta esan dio: "Zorionak!" Eta mahaian, Jose Mari eta Josefa ikusi ditu, La Salleko Joan Bautista, Nazareteko Maria, Anaiak... eta bere ikasle izandako hainbat eta hainbat.

Pizkundean daukagun fedea heriotzatik harantzago begiratzera garamatza, ikuspegi zabalago batez, konfiantzan eta itxaropenean oinarrituta bizi gaitezten. Eta fede horri esker dakigu eta espero dugu bizitza ez dela bukatuko, baizik eta egunen batean Jainkoagan bere betera iritsiko dela.

Ignazioaren testigantza gerta dakigula, salletar hezkuntza misioaren zerbitzuan baikor, zintzo eta eskuzabalez jarduteko bulkada.

Eman diezazkiogun eskerrak Jaunari Anai Ignaziok Salletar Anaidiari eta Elizari eman dien guztiagatik. Izan dezagun fede Kristo Piztuarengan. Ez digu huts egingo, Ignazioari huts egin ez dion bezala. Horixe da eukaristia honetan ospatzen duguna.

Orain, meditaziorako isilunea eginez, Ignazioaren ahotsa entzungo dugu, eliza honetan grabatutako "Gure Etxea" diskoko "Muxu leun ta ekaitz" zatia entzunez. Ignazioaren bizitza izan dakigula esperantzaren euskarri.

Anai Ignazio, mila esker, eta Egun Handira arte!